



❖ UDALA

## Ongintzako apartamentu tutelatuak arautzeko ordenantza onartu du Udalak

Behin betiko onarpena eman aurretik, alegazioak aurkezteko aukera dago hilabetez. Udalak azaldu duenez, apartamentu horien helburua da, salbuespenezko arrazoiren batengatik etxebizitza premia larrian daudenei denboraldi baterako ostatu ematea.

ONGINTZA Udal Patronatuak, apartamentu tutelatuak, etxebizitza tutelatuak eta harrerako etxebizitzak ditu behar gehien dituzten sektoreentzat, eta aurreko astearteko Plenoan, horien erabilera arautzeko ordenantza onartu zuen Udalak. Hasierako onarpena eman zion Plenoak eta orain, hilabetez alegazioak aurkezteko aukera dago. Ondoren, behin betiko onarpena emango zaio eta indarrean jarriko da ordenantza. Udalak azaldu duenez, bizileku horien helburua da salbuespenezko arrazoiren batengatik

60 urtetik gorako pertsona autonomoentzat daude zuzenduta apartamentuak.

etxebizitza premia larrian daudenei denboraldi baterako ostatu ematea.

### Erabiltzaileen arabera

Erabiltzaileen ezaugarrien arabera, hiru bizileku mota izango dira: 60 urtetik gorako pertsona autonomoentzat apartamentu tutelatuak izango dira; bizikidetza-unitateentzat edo inola-

ko familia-loturarik gabe elkarrekin bizi direnentzat etxebizitza tutelatuak; eta emakumeen aurkako indarkeriaren biktimentzat; emakumeentzat zein horien mende dauden seme-alaba eta senitartekoentzat harrerako etxebizitzak.

### Ordaindu beharrekoa zehaztuta

Udalak zerbitzu horiek arautzeko ordenantza fiskala ere kaleratu du eta horien erabiltzaileek ordaindu beharrekoa zehaztu du. Apartamentuen erabiltzaileek hilean ordaindu

beharreko tasa hileko diru-sarrerara baliokidearen %30 izango da, eta gutxienez 200 euro ordainduko dituzte. Etxebizitzaren kasuan, hilean ordaindu beharreko tasa hileko diru-sarrerara baliokidearen %10 izango da, eta gutxienez 100 euro ordainduko dituzte. Harrerako etxebizitzaren kasuan, erabiltzaileak Hernanin erroldatuta badaude, ez dute tasarik ordaindu behar, eta beste udalerrietako erabiltzaileek, 200 euro hilean (erroldatuta dagoen Udalak ordainduko du). Informazio gehiago, Ongintzan. ||

❖ UR FESTA

### Gaur, igerilekuan jostatzeko aukera

Ur festa izango da gaur Kiroldegiko igerilekuan, 10:00etatik 13:00etara. Puzgarri erraldoiak jarriko dira. Sarrera doan da. ||

❖ KAROBI ELKARTEA

### Haur jokoak eta txokolatada, bihar

Karobi elkarteak haurrentzako jokoak eta txokolatada antolatu ditu bihar, 17:30etatik aurrera. ||

❖ ONGINTZA

### Termetara joateko izen ematea zabalik

Urtero bezala, Imsersok, Termalismo sozialeko programa antolatu du hirugarren adinekoei zuzenduta eta izen ematea zabalik dago: otsailetik abuztura arteko egonaldiak eskatzeko, urtarrilaren 15 arte; eta irailtik abendura arte bitartekoak, maiatzaren 15 arte. Eskatera orriak Ongintzan eta Goiz Eguzkin daude. ||

◆ SASKIBALDIA

### Gabonetako Torneoa gaur eta bihar Hernanin

Gabonetako Torneoa jokatu da gaur eta bihar Hernanin. Saskibaloitako taldeko 4 talde federatuek hartuko dute parte. Gaur: 1go urteko kadeteak/La Salle, 10:15etan; 2garren urteko kadeteak/Atletiko San Sebastian, 12:00etan; jubenilak/Atletiko San Sebastian, 17:00etan. Bihar: minibasket mahaingurua 11:00etan; 2garren urteko kadeteak/1go urteko kadeteak, 17:00etan; eta jubenilak/seniorrak 19:15etan. ||

❖ DANTZA GARAIKIDEA

### Hiru saio: gaur, bihar eta etzi

Gaurtik asteazkenera bitarte, dantza garaikidea zer den ezagutzeko aukera izango dute, 16 urtetik gorakoek Txaro Unzillarekin. Saioak Biterin izango dira, 17:00etatik 18:00etara, doan. ||

## Presoen eskubideen alde, Martutenera martxa egin zuten atzo, hainbat herritarrek

EUSKAL Preso Politikoak etxeratze eskatuz eta beraien eskubideen alde, Martutenera martxa egin zuten atzo Hernaniko hainbat senide, lagun eta herritarrek. Astigarragatik abiatu ziren bertako eta inguruko herritarrekin batera eta espetxe aurrean Donostiatik ateratako beste zutabe batekin elkartu ziren. Denak batera, espetxera gerturatu ziren eta aldarrikapen ohien artean bertako hiru preso politiko agurtzeko eta animoak bidaltzeko aukera izan zuten.



Bi zutabe atera ziren: Astigarragatik eta Donostiatik. Bi zutabeek bat egin zuten momentua ageri da argazkian.

Amaierako ekitaldian, presoen kolektiboak azken agirian bildutakoa ekarri zuten gogorra: «Euskal Herriak konponbi-

de politiko eta demokratiko bakarra du: Amnistia eta Autodeterminazioa». Horrez

gain, dei egin zuten presoen alde egingo diren mobilizazioetan parte hartzeko; horien

artean, urtarrilaren 8an Bilbon egingo den manifestazio nazionalan. ||

ZURE HAZI ETA ONGARRI DENDA HERNANIN

HAZI TA HEZI

World Seeds

DINAFEM

JUANA MARI

Kardaberaz 49 behea HERNANI • 943 553380 • denda@juanamari.org

OINDI

taberna

NAGUSIA, 25 HERNANI

943 557 509

MARI FE

ARRANDEGIA

ORDUTECIA

GOIZEAN: 8:00 ~ 14:00

ARRATSALDEAN: 16:30 ~ 20:00

NAGUSIA 36 943 550 489

**TELEFONOAK** ● **Taxiak:** 943 550093 ● **Udaltzaingoa:** 943 248900 ● **DYA:** 943 464622 ● **Autobusak:** Herri barrukoa: 943 550548 – 625 700769, Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037  
● **Anbulatorioa:** 943 006666 ● **Jokalari anonimoak:** 943 331103 ● **Alkoholiko anonimoak:** 943 331103  
✚ **FARMAZIAK** ● **Egunez:** **Aizpuru** Latsunbeberri 11 - 943 336077 ● **Gauzez:** **Chucua** Kardaberaz 48 - 943 551793

**EGURALDIA** **GAUR** Urteko azken astea, izotz kon-  
tuekin hasiko dugu. Dena dela,  
eguzkiak eta hego ukituko hai-  
zeak tenperaturak pixka bat  
igoaraziko ditu. Min.0° / Max.9°.

**BIHAR** Temperatura igo egingo da  
eta giro lasaia izango dugu.  
Erdi mailako eta goi-lainoak  
agertuko dira. Temperatura  
minimoek nabarmen egingo  
dute gora: Min.4° / Max.11°.

## ◆ PELOTA - Diario Vasco Torneoa

# Aitor Gorrotxategiren eskutik, lehenengo txapela

Aitor Gorrotxategi hernaniarrak, Eneko Yoldirekin, Diario Vasco Torneoa irabazi zuen atzo. Gorrotxategi lehenengo pelotaria izan da txapelketa hau irabazten, Hernaniko pelota elkartearen izenean.

AITOR Gorrotxategi hernaniarrak eta Eneko Yoldi nafarrak Diario Vasco Torneoko finala jokatu zuten atzo, Ezkurdia II eta Galarragaren aurka, eta 22-16 irabazi zuten. Hori horrela, Gorrotxategi Hernaniko pelota elkartearen lehenengo txapelketa hau irabazten. Beste hernaniar batzuk ere irabazi izan dute txapelketa hau, baina ez Hernaniren izenean.



Aitor Gorrotxategi.

**Aurkariak asko arriskatu eta huts asko egin**  
Partidua ez zen oso ikusgarria izan eta aurkarien huts egitean egon zen gakoa, nahiz eta irabazleek lan ona egin. Hasieran nahiko pareko ibili ziren; 6garren tantora arte, hain zuzen. Handik aurrera txapelkunak izan ziren aurretik. Ezkurdiak asko arriskatu zuen eta ez zuen behar bezala asmatu. ||

## ◆ KONTZERTUA



### Eliz musika, Kantuz eta Aiztondo abesbatzen ahotsetan

Urtero bezala, Gabonetako kontzertua eskaini zuen atzo Hernaniko Kantuz Abesbatzak. Oraingo honetan, Astigarragako Aiztondo Abesbatza izan zuen lagun eta bien artean eliz musika doinuekin, Milagrosa aretoa bete zuten. Guztira, 13 abesti abestu zituzten: Kantuzek 7 eta Aiztondok 6. Guztiak Igor Arroyok zuzendu zituen. ||

## 🔗 Jasota Bezala

✓ Gutuna argitaratzeko ezinbestekoak dira: izena eta bi abizen, NAN edo EHNA zenbakia eta telefonoa ✓ Gehienez 1.800 karaktere onartuko dira ✓ Kronikak beste hizkuntzetan jasotako kartak euskeratzen ditu ✓ Kronikak ez ditu bere gain hartzen sail honetan esaten direnak.

## Lotsa sentitzen dut

Askotan entzuten da politikok ezberdin mugitzen garela hauteskundeak gertu badaude. Ohikoa da baita ere entzutea denok berdinak garela eta gogoak ematen diguna egiten dugula. Nik onartzen dut gehienok, hauteskundeak gertu badaude, herritarrek eskatzen digutenari arreta gehiago jartzen diogula eta egin behar dena egiten dugula, nahiz eta ez gustatu. Baina oraingo hone-

tan lotsa sentitzen dut Gizarte Zerbitzuei dagokienean, Gobernu Talde hau parametro horietan mugitzen delako. 2010eko aurrekontuak aurkeztu zirenetik, martxoan inguruan, behin eta berriro eskatu dut diru zati bat erabili dadila Zaharren Egoitza martxan jartzeko, baita apartamentu tutelatuak eta etxebizitza sozialak ere. Erantzuna: Diputazioa gora eta Diputazioa behera, eta bitartean adindu asko hiruko getetan lotan eta apartamen-

tuak eta etxebizitzak itxita. Kasualitatez, 2011ko aurrekontuetan (maiatzean hauteskundeak daude), dirua jarri da zerbitzu guztiak martxan jartzeko, eta berdin du Gipuzkoako Foru Aldundiak zer egiten duen. Horrelako gauzeekin auzo-lotsa sentitzen dut eta ziurtatu dezaket denok ez garela berdinak eta denok ez dugula egiten gogoak ematen diguna. **Andoni Amonarraz Gómez** **EAJ-PNVko bozeramailea** (\*Erredakzioan euskeratua)

## ◆ ZINEA

### 'Guru, mi villano favorito' ikusgai gaur

Biterin, *Guru, mi villano favorito* emango dute gaur, 17:00etan, publiko guztiarentzat. ||

## ◆ ELUR TXORI

### Mus Txapelketa bihar, Elur Txorin

Elur Txori elkartearen 51garren Mus Txapelketa jokatu da bihar. 8 partida jokatu dira: Joxe-Manolo/Ramon-Peli; Xabier-Kijera/Rafa-Javi; Otegi-Burugain/Roberto-Antonio; Iturriza-Esnal/Diego-Iñaki; Gorka-Uriarte/Angel-Txemari; Artetxe-Aierdi/Alvaro-Pablo; Boti I-Boti II/Pottoko-Arraras; eta Pako-Biurra/Pako-Joxan. ||

## ◆ ZERO ZABOR

### Konpostatzaileen topaketa etzi, Biterin

Hernaniko konpostatzaileen lehenengo topaketa izango da asteazkenean, Hernanin Zero Zabor taldeak antolatuta. Biterin izango da 19:30etan. ||

## ◆ MARTINDEGI

### Bertso afaria, Etxeberria sagardotegian

Martindegiko auzo elkarteak bertso afaria antolatu du urtarilaren 8an, Etxeberria sagardotegian. Jon Maia eta Sebastian Lizaso ariko dira bertsoan. Txartelak 30 euroan daude salgai Oialume tabernan. ||

## ◆ ATLETISMOA

### Atletismo taldeak eskerrak eman nahi dizkie loteria saldu eta erosi duten guztiei

CD Hernani atletismo taldeak eskerrak eman nahi dizkie Gunea garagardotegia, Konde kioskoa, Rioja taberna eta Loteria saltzen aritu diren atleta guztiei. Baita erosi eta laguntza eman duten guztiei ere. ||

## ◆ ASTIGARRAGA

### Haurrentzako zientzia tailerrak aste honetan

Gaurtik ostegunera bitarte, 9 urtetik gorako haurrentzat zientzia tailerrak izango dira Astigarragako kultur etxean, 16:00etatik 18:00etara. Izen ematea: 943 33 50 64. ||

## Eskelak

Eskelak ilunabarreko 20:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duen eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

## TERESA BARCENILLA SAEZ

Abenduaren 24an hil zen, 62 urte zituela

*Ez agurrik, ez adiorik  
gero arte baizik.*

**ZURE ILOBAK**



Elizkizunak, **GAUR, ASTELEHENA**, arratsaldeko **19:00etan, SAN JOAN BATAIATZAILA** parroki elizan.

Hernanin, 2010eko abenduaren 27an

## ◆ IRAGARKI MERKEAK ◆

Neska euskalduna sagardotegi denboraldian lan egiteko eskaintzen da: sagardotegian, ostalaritza... Harremanetarako: 617 630 528  
**Pisu bat alokatzen dut Hernanin**, Karmelo Labaka kalean. 2 gelakoa, kafefakzio indibidualarekin. Dotorea. 700 euro. Bankuko abala behar da. Tlf: 600609754  
**Emakume euskaldun bat behar dugu goizez**, haurrak jekiri arazi, gosaria eman eta eskolara eramateko. Deitu: 661 679 700  
**ETXEKO KONPONKETAK egiten dira**: iturgintza, elektrizitatea, pintura, berogailuak, antenak ere bai... Seriotasuna. Deitu: 616 886 660.  
**Enara Goikoetxea**. Terapia energetikoak, Kristaloterapia, Flores de Bach, Masaje metamorfikoa, Reikia, Tarot terapeutikoa. Tlf: 943-332894 - 649-700762. (Agustindarren plaza 4)  
**YOLANDA ESTETIKA ZENTRUA**. Fotodepilazio berria, prezio bereziak eta pertsonalizatuak. "Fotorejuvenecimiento", Dieta personalizatuak, zure pisua kontrolatzen dugu. Plataforma bibratzaila. Atzieta 2, behea. Tlf. 943 55 32 78.  
**Alicia C.C.**: Modu pertsonalean eta profesionalen garapena lortzeko: **Coaching, PNL, erlazioak, Flores de Bach, hipnosia...** Deitu: 943 33 28 94 / 653 267 146. (Agustindarren plaza, 4)  
**Iñigo Royo Masajista**. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta berbebrala, reflexologia, auriculoterapia, ... 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)